

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jardueren artean, garrantzitsuena gure **bezeroak ondo ezagutzea** izango da, beraiek izango baitira gure proiektuaren existentziaren arrazoia.

Egingo ditugun jarduerak prestatu aurretik, aurrelanketa bat egitea beharrezkoa dela uste dugu. Lehendabizi ekintzak burutu nahi ditugun herri horien azterketa egingo dugu, biztanleriak izan ditzakeen behar, gustu edota ohiturak ezagutzeko, izango ditugun baliabideak, erabili ahal izango ditugun espazioak, baliabide naturalak ezagutzeko...

Beraz, herri bakoitzean beharizan desberdinak dauden heinean gure ekintzak ere beharizan horietara moldatuko ditugu.

Herri bakoitza aztertu ondoren, behar dituzten espazioak, ekintzak, aisialdia, tailerrak, formakuntzak, tertuliak.... eskainiko dizkiegu eta beraz, hau beste jarduera bat izango da; buruari bueltak eman eta sormenezko eta benetan behar dutena eskaintzea, alegia.

Gure aisialdiko jarduera guztiak familia guztiarentzako pentsatutakoak dira. Natura oso presente egongo da gure ekintzetan eta **elkarlana eta kooperazioa** izango dira gure ekintzen ezaugarri nagusienetakoak. Argi dugu gure jarduera guztiek asmo hezigarria izan behar dutela eta ez haurra entretenituta izatea soilik.

Hauek izango dira hasiera batean proposatuko ditugun jardueretako batzuk, familiak ezagutu ahala baliteke ekintza batzuk gehitu, aldatu edo egiten uztearena ere.

- Sormen tailerrak
- Gastronomía tailerrak
- Ipuin kontaketak
- Jostailu gabeko guneak
- Irteerak: basora, mendira..
- Tertuliak
- Ikastaroak; laktantzia, autonomia lantzea, mugak ezartzearen garrantzia...
- Hitzaldiak

Ondoren goiz edo arratsalde bat gurekin nolakoa izan daitekeen deskribatuko dugu:

- **SUKALDARITZA LANAK**

- Hasteko, janari osasuntsuaren inguruko hitzaldia emango genuke, Yolanda Rodriguezek janari ekologikoaren inguruan hitz egingo zigularik.



- Ondoren, elikagai osasuntsu desberdinak banatuko ditugu eta taldeka jarriko gara. Talde bakoitzak janari osasuntsu baten errezeta idatzi eta praktikan jarriko du.

- Talde guztiak amaitzerakoan, guztion artean hamaiketakoa egingo dugu, prestatutako janariak dastatu ahal izateko. Tarte honetan, familiak beraien artean bizitako esperientziak, etxean jaten dituzten elikagaiak... elkartrukatu dituzte.



- **EGUN BAT BASOAN**



Naturak ematen dizkigun baliabideen artean, Euskal Herriko basoak oso aberatsak direla ezin dugu ahaztu, horregatik, hauei probetxua atera nahi diegu. Esan beharra dago, basoan egun bat planifikatzea oso zaila dela, izan ere, basoa etengabe aldatzen doa; elurra, euria, hostoak jausten dira, harri berriak agertzen dira....



Beraz, basora goazenean basoa entzutea ezinbestekoa izango zaigu eta momentuan ekintzak ere planteatu ahal izango ditugu.

Euriarekin gozaten ikasi behar dugu, beraz egun euritsu baten ondoren putzuetatik salto egitera ere irten gaitzke momentu ahaztezin bat bilakatzeko asmoz.



Amaitzeko, esan dugun bezala, etengabeko formakuntzan aritzea ezinbestekotzat jotzen dugu, gure haur eta familien bidelagunak izatea nahi dugun bide horretatik abiatuta, beraientzat onena nahi izango dugu eta beraz, guztion artean proiektua aurrera ateratzea izango da gure xedea.